

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2020ko UZTAILAREN 16ko BILKURA

Bi mila eta hogeiko uztailaren hamaseigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da herriko kirol aretoan. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Didier Irastorza, ordeak, Corinne Othatcegy (19:45etik goiti), Jean-Jacques Lassus, Bernadette Remeau, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Didier Irastorza-k Eliane Aizpuru-ri, Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Bernadette Remeau-k Christian Devèze-i, Nathalie Aïçaguerre-k Michel Duthilleul-i, Jean-Paul Alaman-ek Argitxu Hiriart-Urruty-ri.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die 2020ko ekainaren 29ko Herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

Othatcegy anderea bilkuratik jalgi da 19:45ean, lehen erabakia bozkatu aitzin.

29 – Elkarreentzako dirulaguntzak (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 2020 urtean elkarreentzako emango zaizkien dirulaguntzei buruz beren iritzia ematea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul eta Lilian Hirigoyen.

30 – GEUZaren dirulaguntza (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio herriko GEUZari 167 500 €ko dirulaguntza ematea.

Aho batez onartua.

31 – Langileria: Covid-19 prima (Auzapezak aurkeztua).

Lurralde erakundeek, Frantziako 2020ko martxoaren 23ko legearen 4. artikulua arabera, ezohiko prima bat eman diezaiekete osasun larrialdi egoeran mobilizatu diren langileei, garai horretan lan gehigarria izan baitute.

Herri Biltzarkideei proposatu die ezohiko prima horren ezartzeaz, esleipen irizpidez eta gain-mugaz deliberatzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Berrogeita bederatzi langilek ukanen dute prima hori, eta orotara 8 462,50 €ko gastua izanen da.

Aho batez onartua.

32 – 2020ko aurrekontu norabideak (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua arabera, Herri Biltzarrari 2020ko aurrekontu norabideen txostena aurkeztu zaio.

Herri biltzarrari eskatu dio norabideei buruzko eztabaida izan dela egiaztatzea eta txostenaren edukiaz deliberatzea.

33 – 2020ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontuaren bozketa (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatzen dio 2020ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontua onartzea, zeinean funtzionamendu atala 7 319 955 €-tan orekatzen den, eta inbertsioena 3 733 268 €-tan.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

34 – Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiaren hasierako aurrekontuaren bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarkideei galdegin zaie 2020ko hilobi eta kolumbariumei buruzko aurrekontu erantsia onartzea, funtzionamendu saila baizik ez duelarik eta 25 636 €-tan orekatzen dena.

Aho batez onartua.

35 – Zerga zuzenen herri batzordea: kideen izendapena (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak azaldu du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-32 artikulua araberako Herri Biltzarrak zerga zuzenen batzordeko kide izan daitezkeen zerga ordaintzaileen zerrenda egin behar duela, Frantziako Zergen Kode Orokorreko 1650 artikulua baldintzetan.

2 000 biztanletik gorako herrietan batzorde horrek 9 kide izan behar ditu, honela banatuak:

- Auzapeza edo bere orde eskuordetua, presidente gisa,
- Zortzi batzorde kide titular eta zortzi ordeko

Batzordeko kide guztiak herri biltzarkideak eraberritu eta bi hilabetera izendatu behar ditu departamenduko finantza publikoetako zuzendariak, Herri Biltzarrak proposatu dion kopuru bikoitzeko zerrenda batean oinarri hartuz.

Proposatu du ondoko zerrenda igortzea departamenduko finantza publikoetako zuzendariari, zerga zuzenen herri batzordea osa dezan:

Titularrak	Ordezkoak
Henri JEANNOT	Olivier ROBLLOT
François AMESTOY	Pascale LESPAGE
Annie HERNANDORENA	Roger BARBIR
Claude TROTOT	Henri SAINT JEAN
Maryannick HIRIGOYEN	Serge MOURGUIART
Annie RENAUDIN	Pierre DUSSERT
Camille JENVRIN	Jean SALLABERRY
Eliane NOBLIA	Michel DEVAUX
Frédéric BARDIN	Patrice DOR
Jean-Louis DUHART	Jean-Dominique LAFFITTE
Jeannette CASTAJON	Bertrand COIN
Anne-Marie PONTACQ	François HAYET
Michel DUTHILLEUL	Jean-Paul ALAMAN
Philippe BACARDATZ	Nathalie Aïçaguerre
Lilian HIRIGOYEN	Argitxu HIRIART-URRUTY
Amaia BEYRIE	Éric CECCHY

Aho batez onartua.

36 – Arnaga museoko bildumako obren prestatzeko hitzarmena (Poulou jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio baimena eman diezaion Frantziako Antony hiriko herriko etxearekin hitzarmen bat izenpetzeko, 2020ko urriaren 14tik 201eko urtarrilaren 3ra Antony-ko Arteen Etxean iraganen den « Cyrano de Bergerac dans les arts » erakusketarentzat.

Aho batez onartua.

37 – Eskola garraioak: Ipar Euskal Herria-Aturri mugikortasunen Sindikatarekin hitzarmena (Auzapezak aurkeztua).

2018an, Kanbo herriak Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikatari (SMPBA) eskuordetza eman zion eskola garraioen antolatzeko.

Hitzarmen hori bi urtekoa denez, 2020ko uztailaren 31an bukatzen da.

Herri Biltzarrari eskatu dio baimena eman diezaion SMPBA-rekin 4 urterako hitzarmen berria izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

Solasgai guztiak landurik, saioa 22:10ean bukatu da.